

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ingelesez Ikasteko Programaren azterketak aniztasunari erantzutea eta irakasleen prestakuntza lehenetsiko ditu

Mendoza kontseilaria PAI ematen duten Nafarroako 35 udalerritako 50 ikastetxetako ordezkariekin bildu da gaur goizean

Jueves, 27 de agosto de 2015

Hezkuntzako kontseilari José Luis Mendoza Nafarroako 35 udalerritako 50 ikastetxetako hezkuntza-komunitateen 150 ordezkari baino gehiagorekin bildu da gaur goizean, Ingelesez Ikasteko programa (PAI) ematen edo datorren ikasturtean (irailean hasiko da) emango duten ikastetxeko ordezkariekin, hain zuzen ere.

[Iragan](#) [asteartean](#),

Tuteran, Erriberako ikastetxeekin egindako bilkuraren antzeko gaurko bileran, Mendoza kontseilariak azpimarratu du PAI programa ikasturte honetan hala egitea aurreikusita zegoen ikastetxeetan ezarriko dela; ez da etengo, baizik eta "ebalatu egingo da hobetu ahal izateko irakasleen prestakuntza egokiarekin, beharrezko baliabideekin eta aniztasunari erantzunez, hezkuntza beharrak dituzten adingabeak baztertuta gera ez daitezen".

Mendoza kontseilariarekin batera, Hezkuntzako eta Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusi Estebe Petrizán eta Juan Ramón Elorz zuzendari nagusiak izan dira, hurrenez hurren; hala, kontseilariak, bilkurara jende asko bertaratu izana eskertu du, eta legealdi honetarako [Programa Akordio](#)an ageri diren hezkuntzako plangintzak ere azaldu ditu. Haien artean, irakaskuntza publikoaren aldeko apustua azpimarratu du lehentasunezko elementu modura, itunpeko irakaskuntza aurrekoaren osagarri bat izanik.

Bilkuran 2015-2016 ikasturtean PAI programa eskainiko duten ikastetxeetako udal ordezkariak, ikastetxeetako arduradunak eta gurasoen elkarteko kideak izan dira.

Galderen txandan, bertaratutakoek beren kezka agertu dute hizkuntzen programetan irakasleek duten prestakuntzarekin eta aniztasunari ematen zaion erantzunarekin. Alde horretatik, Jose Luis Mendozak, irakasleen prestakuntza hobetzeko Departamentuak duen borondatea erakutsi du, eta irakaskuntza-mota hori bateragarri egiteko



Mendoza kontseilaria, Petrizán eta Elorz zuzendari nagusiak alboan dituela, gaurko bilkuran.

aniztasunari erantzuteko "oso premiazkoa" den helburuarekin.